

Adarra-Mandoegiko parke eolikoak aurrera jarraitzen du, lana egin behar duen enpresaren arabera. Eusko Jaurlaritzak, ordea, berretsi egin du egitasmo guztiak geldirik daudela.

Ero haizea eolikoetan

Mikel Peruarena

Adarra-Mandoegiko parke eolikoak, Gipuzkoaren eta Nafarroaren arteko mugan, «astiro, baina aurrera doa». Hori azaldu dio Eolicas de Euskadi enpresak BERRIARI. Eusko Legebiltzarren erabakiarekin kontratsanean dago, baina ingurumen baimena eskuratu ostean, proiektuak indarrean jarraitzen duela ziurtatu du obra egin behar duen enpresak. Astelehenean sei hilabete beteko dira Eusko Legebiltzarrek parke eolikoaren egitasmo guztiak gelditzea erabaki zutenetik. Agindua betetzen ari dela ziurtatu du, ez behin bakarrik, Eusko Jaurlaritzak. Industria Sailak BERRIARI baieztatu dio «zehatz-meatz» betetzen ari dela Legebiltzarren ekainaren 18ko erabakia. «Izapide batzuk mantendu egin dira, lehendik zetoze-lako, baina guztiak geldituta daude». Mendiak Aske taldeak beste bertsio bat eman zuen asteartean: enpresek lanean jarraitzen dutela, eta ez dutela gelditzeko agindurik salatu zuen taldeak. Salaketa horrekin «harritura» agertu da Industria Saila. Egitasmo asko geldirik edo motelduta daudela, du-darik ez da. Baina Jaurlaritzaren erabakiak zenbat eragin duen, ez dago hain argi. Haize eroa dabil eolikoetan, eta haize errotek txindurrituak daukate besoak.

Adarra-Mandoegiko parke eolikoaren kasua berezia dela onartu du Jaurlaritzak. Ingurumen eraginaren azterketa Legebiltzarren erabakiaren aurrekoa da. Industria Sailak zehaztu du, bestalde, egitasmo hori dela gatazka gutxienez sortu duenetako bat, «inguruko instituzio guztiak ados daudelako». Eolicas de Euskadi enpresak nabarmendu du urratsa dela ingurumen eraginaren azterketa eskuratzeko, eta obrarako lizentziak tramitatzen ari dela. Argindarra garraiatzeko linearen diseinua ere egiteko dago. «Krisiarekin nahikoa geldituta dago sektorea», azaldu du enpresak. Berastegiko Udalaren lurretan egongo da parkearen zati bat. Udalak ez du informazio zehatzagorik, Eolicas de Euskadi eman-dakoaz gain, baina proiektua gelditzean dagoela azaldu du, «arrazoi ekonomikoengatik». Bai

udalak, bai enpresak, biek berretsi dute Legebiltzarren aginduak ez liokeela egitasmoari eragingo, «lehenagokoa» delako.

«Sinetsarazi nahi digute egitasmoak geldirik daudela», salatu du Koldo Ortiz de Ginea Mendiak Aske taldeko kideak. Jaurlaritzak gezurretan ari dela, Legebiltzarren agindua ez dela betetzen, eta enpresek parke eolikoak egiteko lanean jarraitzen dutela berretsi du: «Zertan dabil exekutiboa? Zergatik ez du agindurik eman gelditzeko?». Legebiltzarrek erabakia hartu aurretik eman zituztela egitasmo gehienak eta, beraz, gelditzea erabakiak ez diela eragiten argudiatzen ei dute enpresek, Ortiz de Gineak dioenez: «Guri enpresek esan digute lanean jarraitzen dutela». Enpresen ustez, Eolikoan Lurralde-Plan Partziala zaharrak eragiten die parke berrien egitasmoei. Hain justu, iazko apirilean, hamabost parke eoliko berri egiteko baimenak eman zituen Eusko Jaurlaritzak—Legebiltzarrek egitasmoak gelditzea erabaki baino bi hilabete lehenago—. Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan 50 megawatt baino gehiagoko lau parke eoliko daude egun; 152,8 megawatt sortzeko potentzia dute. Hamabost egitasmo berri horiekin, 290,6 megawatt gehiago sortuko litzuke energia eolikoak.

Finantzean arazoak

Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Sailak baieztatu du iaz, urte hondarrean, informazio eske eta izapide batzuk egiten aritu zirela zenbait enpresa, parke eolikoak jartzekotan. Eskumenak Eusko Jaurlaritzarenak direla, eta Foru Aldundiak ez duela informazio zehatzik argitu du Ingurumen Sailak: «Baina ikusi dugu prozesuak normal jarraitzen duela, enpresek jarraitzen dutela informazio eske». Eolicas de Euskadi ere hala esan du, izapideak teoriarik geldirik daudela, baina aurrera jarraitzen dutela, eta egitasmo batzuek aurrera ez egitearen arrazoi finantzean dagoela.

Parke eolikoetan inbertsioa egitea ez da, izan ere, duela zenbait urte bezain errentagarria. Edo zalantzan dago errentagarria ote den, behintzat. Herenegun hitzaldia eman zuen Josu Jon Imaz Petronorrek lehendakariak Gastetzen: «Sarietan, laguntzetan eta



Oiz mendiko haize errota. JONHERNAEZ/ARGAZKI PRESS

zerga onuretan egonkortasuna egoteak bakarrik balio dio luzerako inbertsioak egiten dituenari». Espainiako Gobernuak iaz, ekainean, onartu zuen energia berriztagarri buruzko azken dekretua—2007koa zen aurrekoa—. Enpresek maiz kritikatu dute sektoreari buruzko araudia eta baldintzak gehiegi aldatzen direla, eta ho-

Jaurlaritzak ez duela gelditzeko agindu, gezurretan ari dela dio Mendiak Aske-k

Jaurlaritzak «harritura» dago salaketarekin, eta egitasmoak geldi daudela ziurtatu du

Geldialdiak ez die eragiten lehendik abiatutako proiektuei, enpresen iritziz

rrek ezegonkortasuna eragiten duela sektorean.

2007ko dekretuak hainbat diru laguntza zehaztu zituen energia berriztagarrikoekin zituztenez. Araudiaren gerizpean, Espainiako eta Hego Euskal Herriko energia eolikoak %33ko hazkundera izan zuen. 2009ko dekretuak hankaz gora utzi du egoera hori. Hoberi eta laguntzak jaso nahi dituzten enpresek zerranda batean izena eman, eta hainbat baldintza bete behar dituzte. «Sis-

temaren iraunkortasuna» kolokan jar zezaketela, eta laguntzak nolabait murrizteko asmoa agertu zuen Espainiako Gobernuak. Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Sailak hala esan du: «Zalantza dezente sor litezke, aurrerantzean, proiektu berriak egiteko».

Arabako bioaniztasuna

«Energia berriztagarriak asko lagundu dira diru publikoak», adierazi du Ortiz de Gineak: «Kontua da diru publiko hori esku pribatueta-ri joaten dela. Laguntzak murriztu gero, ikusiko da enpresen helburua zein den: energia berriztagarriak sustatzea, edo dirua egitea». Mendiak Aske taldeko kideak argi du enpresa batzuek ez dutela jarraituko diru laguntzarik ez bada: «Horikusiko da enpresen interesa. Bost axola zaizkie ingurumena eta klima aldaketa».

Ortiz de Gineak argitu du energia berriztagarrien alde dagoela Mendiak Aske, baita eolikoaren alde ere. Baina Araban, mendietan, «hobekien mantenduen bioaniztasuna» dagoela ziurtatu du, eta hura babestu nahi duela taldeak. Arabako Foru Aldundiak onartutako Mugarri planari eusteko eskatu du: «Parke eoliko bakoitzarekin 30 hektarea galtzen dira. Mendiari eta naturari kalte egin gabe, posible da energia eoliko hiru koiztea. Bide ertzetan, industrialdeetan... Halako lekuetan jar litezke. Mugarri planak zehazten ditu baldintzak eta lekuak».

• mperuarena@berria.info

Atez ateko bilketa nola egin zehaztu dute Oiartzunen eta Hernanin

Gauetz egingo da bilketa bi herrietan; Hernanin 141 lagunek izena eman dute etxean konposta egiten hasteko

Erredakzioa Donostia

Herritarrekin hasitako eztabaida prozesuak amaitu dituzte Hernanin eta Oiartzunen (Gipuzkoa), eta bi herrietan atez ateko hondakin bilketa selektiboa nola egingo den adostu dute dagoeneko. Hernanin, 1.120 lagun aritu dira parte hartzeko prozesuan. 45 lagunek izena eman dute, bestalde, jarraitzen batzordean. Oiartzungo prozesuan zenbat herritarrekin parte hartu duen ez du jakinarazi udalak, baina zehaztu du «bilerak atez ateko bilketa oiartzunen beharretara ahalik eta ongiengia egokitzeko baliagarriak» izan direla. Bi udalak ere, atez ateko bilketa zintzilikailuak non jarri aztertzen ari dira orain—proposamenak egin ostean, hamabost eguneko epea izango dute herritarrek, aldatarik egin nahi badute—, eta udaberriaren bilketa sistema berria abian jartzeko espero dute.

Hernanin, garbigunea

Bestalde, garbigunea egingo duela azaldu du Hernaniko Udalak. Ibarluze industrialdean jarriko du, «noizean behin etxean sortzen diren hondakinak» eta birziklatu ezin direnak biltzeko. Etxean konposta egiteko kanpaina ere abiatu du udalak, eta 141 lagunek izena eman dute. Asteartean hasiko dira ikastaroak egiten eta konpostagailuak banatzen.

Beste hainbat xehetasun ere adostu dituzte bi herrietan. Bilketa gauetz egingo dela, esaterako: Oiartzunen 20:00etatik 22:00etara utzi ahal izango dira hondakinak, eta Hernanin 20:00etatik 23:00etara. Zehaztu dute, gainera, egun bakoitzean zer atera beharko den etxe atariko zintzilikailura: ontzi arinak bitan aterako dira; papera egun batean; organikoak hiru egunetan; eta erreusa beste egun batean. Pixohialak eta konpresak egunero atera ahal izango dira.

Horiez gain, larrialdietarako guneak jarriko dituzte bi herrietan. Oiartzunen, giltzak itxitako sei etxola jarriko dituzte, landa eremuan bizi eta hondakinak etxeko atarian jasokoez dizkieten bizilagunentzat. Hernanin Larrialdietarako lau gune jarriko dituzte, eta landa eremuan bizi diren zako beste hiru bilketa puntu jarriko dituzte.